

# SOLIDARITATEAREN ALDEKO ORRI-MARKATZAILEAK



Save the Children



# SARRERA-TESTUA

Gida didaktiko honen bidez erakutsi nahi da zer-nolako garrantzia duen ur garbia izateak haurrek bizirik irauteko, baliabide hori faltatzeak eragiten duen ahulezia eta zer lan egiten duen Save the Children erakundeak egoera horren ondorioak arintzeko.

Txostenak eta ariketek irakasleen lana osatzen dute eta errealitate desberdinak gerturatzen dizkiete elkartasuna, lankidetzaz, errespetua eta erantzukizuna gisako balioetan egindako lanari laguntzeko.

**Zuzendaria:**  
Marisol Paniagua

**Laguntzaileak:**  
M<sup>a</sup> Luisa Ortega del Val  
María Cimadevilla  
Silvia Lara  
Juan Guilló

**Azaleko argazkia:**  
Stuart Sia / Save the Children

**Artea eta maketazioa:**  
Germán Gullón (VALBHY)

**Argitaratzailea:**  
Save the Children España

**Lege-gordailua:**  
M-6191-2017



Ura izatea oinarrizko Giza Eskubidea da, baina Afrikako milioika pertsonak ez dute bermatuta eskubide hori.



Argazkia: Zacharias Abubeker/Save the Children

# URA, BEHARREZKO BALIABIDEA

Lurraren hiru-laurden urez beteta dago. Ia gehiena gazia da, % 2,5 soilik da geza. Guk, bizitzeko eta garatzeko, ur geza behar dugu. Baina, gainera, ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu: **likidoa izan behar du, garbia eta lortzeko erraza.**

Hori dela-eta, pertsonok uraren ziklo naturalean esku hartu dugu eta azpiegiturak eraiki ditugu naturan eskuragarri dagoen ura biltzeko eta erabili ahal izateko tratatzeko.

Baina toki guztietan ez da modu berean lortzen ura. Munduko txoko askotan, Afrikako herrialde askotan, esaterako, oso zaila da ur garbia eta edangarria aurkitzea. Toki horietan kontsumitzen duten uraren kalitatea ez da nahikoa eta horrek arazo oso larriak sortzen ditu herritarrengan eta, batez ere, egoera ahulean dauden haurrei eragiten die.

## URA LORTZEA, GIZA ESKUBIDEA DA

Duela 60 urte baino gehiago, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak baieztatu zuen ur edangarria eta saneamendua izatea funtsezko giza eskubidea zela. Baina, gaur egun hitz hutsak dirudite, milioika pertsonok munduan ez baitute ur edangarririk eta oinarrizko saneamendua falta baitzaie.

Arazo nagusia ez da ur-eskasia, egoera ahulean dauden biztanleek eskura ez izatea baizik. Azpiegiturretan inbertsio-faltaren, gero eta biztanle gehiago izatearen eta egunero ur gehiago kontsumitzearen ondorioa da. Martxa honetan, hiru pertsonetatik bik ur eskasia izango dute 2025. urtean.

Arazoa hain da larria, non Nazio Batuek egun bat izendatu baitzuten ura izaki bizidun guztiontzat zein garrantzitsua den guztiok kontzientziaztea zuena helburu: **martxoaren 22a, Uraren Nazioarteko Eguna.** Egun hori gobernuek, GKEek, enpresek eta gizarte zibilak elkarlanean baliabide hori babesten parte hartzeko eta guztiok ur edangarriaren hornikuntza-arazoaren gainean hausnartzeko eguna da.

# URA AFRIKAN

Ur-baliabideak oso sakabanatuta daude Afrikan. Zenbait herrialdek ur-ekarpena nahiko egonkorra badute ere, Afrikako Adarra gisako beste eremu batzuetan, oso urria da. Egoera horretaz gain, herrialde gehienek ez dute aldizkako lehorteei aurre egiteko baliabiderik eta ez dute baliabiderik ere, oro har, landa-eremuan eta oso sakabanatuta bizi diren biztanle orori ura banatzeko azpiegiturak garatzeko.

Azpiegitura-eskasiaren zuzeneko ondorio bat da lau afrikarretatik hiruk lurpeko ura erabiltzen dutela oinarrizko ur edangarria lortzeko iturri gisa eta ondorioz ura lortzea zaila izan ohi da. Bestalde, lurpeko uren kalitatea desberdina da: Saharaz azpiko herrialdeetan, artsenikoa eta fluoruroak izan ohi dituzte, eta gainera industria-hondakinak eta pestizidak edo ongarriak bezalako nekazaritza-hondakinak gehitzen baditugu, zailtasun bikoitza dugu: sarbide zail eta garestia eta ur kutsatua edo kontsumitzeko kalitate eskasekoa.


Zailtasun horiek arazoa enkistatzen eta pobrezia betikitzen laguntzen dute.



Hondakin-uren kudeaketa eskasa.



Kalitate gutxiko lurpeko ura erabiltzea.



Administrazio-kontrol urriak lagundutako kutsadura.

## KLIMA-ALDAKETAREN ETA EL NIÑO FENOMENOAREN ERAGINAK

Klima-aldaketa Lurreko klimaren aldaera orokorra da, gizakiaren esku-hartzeak eta indarrean den garapen-ereduak eragindakoa. Aldaketa horiek tenperaturak, prezipitazioak eta beste klima-aldaera batzuk aldatzen dituzte. Eta horiek gizakien bizitzetan baldintzak aldatzen dituzte eta eragin handiak dituzte ekosistemetan, animalia- eta landare-espezieak ahulagoak dira eta komunitate txiroenetan ahulezia hori askoz gehiago areagotzen da.

El Niño bezalako klima-fenomenoek ura lortzeko egoerak larriagotzen dituzte, ez edateko soilik baita nekazaritzarako eta abeltzaintzarako ere. Jarduera horietatik lortzen dituzte herrialde txiroenetako familiek diru-sarrerara nagusiak.

# ZER DA EL NIÑO FENOMENOA?

Paradoxikoki, gaur gaurkoz, izena ematen dien horientzat mundu-mailako mehatxua den fenomeno gisa azal dezakegu.

Ozeano Barea berotzearen ondorioz sortzen da El Niño eta 3-7 urtez behin gertatzen da. Ur beroen masa horrek alisio-haizeak ahultzen ditu edo norabidez aldatzen ditu. Aireko eta itsasoko korrante-aldaketa horien ondorioz, beroa askatzen da atmosferara eta mundu osoko klima-baldintzak aldatzen dira. Zenbait tokitan prezipitazioak areagotzen dira eta, beste batzuetan, gutxitu egiten dira uholdeak eta lehorteak eraginez. Tenperaturekin ere beste horrenbeste gertatzen da, zenbait tokitan altuagoak dira eta, beste batzuetan, baxuagoak.

Fenomenoaren eraginak ahulak izan ohi dira, baina tarteka suntsitzaileak bihurtzen dira, une honetan gertatzen den moduan.



## EL NIÑO FENOMENOAREN ONDORIOAK

El Niño fenomenoak lehorteak eragiten ditu. Euri-falten ondorioz lursailak lehortu egiten dira eta animaliak hil egiten dira; ondorioz, familiei bizitzeko oinarrizko elikagaiak eta bitartekoak falta zaizkie. Familia askok dituzten azken ondasunak saldu behar izaten dituzte jan ahal izateko, eta ezertxo ere gabe geratzen dira. Prozesu horretan neska-mutil askok eskolara joateari uzten diote eta bizitza arriskuan jartzen duten lanak egitera bidaltzen dituzte. Gainera, osasun-gastuak gutxitu eta ezabatu egiten dira.

Uholdeak dira El Niño fenomenoaren beste ondorio arriskutsuetako bat. Itota hiltzeko benetako arriskuaz gain, uholdeek ur-iturriak kutsatzen dituzte, eta kolera edo sukar tifoidea gisako gaixotasunak suntsitzaileak izatera irits daitezke.

Bai lehortearen efektuagatik, bai uholdeenengatik, familiek beren etxeetatik ihes egin behar izaten dute elikagaiak, ura edo lana aurkitzeko. Ihes horren ondorioz, pertsona askok osasun-sistema edo etxea izateari uzten diote, eta ahulezia muturrekoa bihurtzen da.

Afrikako ekialdean kalkulatzen da 22 milioi pertsona ziurtasun gabeko elikagai-egoeran izateko arriskuan egongo direla, hau da, oinarrizko elikagaiak lortzeko zailtasunak izan litzaketela. Etiopia, Somalia, Eritrea eta Hego Sudan dira gehien eragindako herrialdeetako batzuk. Toki horietan pobrezia kronikoa da eta neska-mutilak dira ahulenak.

# NOLA ERAGITEN DIE HAURREI UR EDANGARRIA EZ IZATEAK?

Urik ez izateak berehalako eta etorkizuneko ondorioak ditu haurrengan eta eragina du alor hauetan:

- **Osasuna:** egoera txarrean edandako urak eragindako diarrea da bost urtez azpiko haur-heriotzaren arrazoi nagusietako bat, desnutrizioarekin batera, zeina larritu egiten den horrelako ura edanda. Badira ur geldien osasungarritasun ezarekin lotutako beste gaixotasun infektzioso batzuk ere eta ugaritu egiten dira malaria- edo denge-kasuak.
- **Hezkuntza:** lehorte handieneko uneetan izan ohi den ur-faltak eskolak aldi baterako itxiarazten ditu eta neska-mutilek eskola uzten dute.
- **Generoa:** Ur edangarri eta saneamendu faltak batez ere emakumeen eta nesken bizitzetara eragiten die, eurak baitira ur bila joateko ardura izan ohi dutenak. Biltzen den uraren % 71 neskek eta emakumeek biltzen dute. Asko hainbat kilometro ibiltzen dira ur bila joateko, batez beste lau ordu egunean, eta beraz eskola-absentismoaren arrazoi nagusietako bat da, batez ere nesken kasuan. Neskek hezkuntzarako duten eskubidea galtzen dute, pobrezia-egoeratik irteteko tresna onena.
- **Babesa:** Amek distantzia handia egin behar dutenez ur bila joateko, denbora horretan seme-alabak zaindu gabe geratzen dira, babesik gabe eta arriskuan.

Ura bizitzaren eta garbiketaren sinbolo da kultura askotan, **baina gaixotasun eta heriotza bihurtzen da populazioaren zati handi batentzat.**



Ur edangarria eta saneamendu egokia dituztela ziurtatzeak, ez du soilik ziurtatzen hurrek ura edan edo beren burua garbi dezaketela, **bizirik iraun, ikasi eta babestuta egon daitezen laguntzen da.**

# ETIOPIAKO LEHORTEAREN ONDORIOAK, EL NIÑO FENOMENOAK GEHIEN ERAGINDAKO HERRIALDEETAKO BAT

**5 milioi neska-mutil inguru daude gosete-arriskuan, Etiopiako elikagai-krisi okerrenetako baten ondorioz.** Elikagai-krisi hori normalean berde eta produktibo diren eskualdeetan izandako lehorreek eragin ohi dute.

350.000 neska-mutilek desnutrizio larria jasaten dute; gaixotasun hori tratatzen ez bada hazkuntzan atzerapenak eragin ditzake, hala fisikoki nola mentalki, eta kasurik okerrenetan, heriotza eragin dezake.

Aurtengo lehorrea, batez ere, El Niñok eragin du eta 8,2 milioi pertsoneri eragin die zuzenean, gutxi gorabehera Erresuma Batuen hedadura duen eremu batean. Lehortearen ondorioz, familia osoek euren diru-iturria eta elikagai-horniketa galdu dute, eta milioika pertsonen bizitzak, eta batez ere haurrenak, kinka larrian daude.

**Herrialde horretan lanean dihardugun urteetan, elikagai-segurtasunean, hezkuntzak eta osasunean lortutako aurrerapen handiak arriskuan daude.**

## SAVE THE CHILDREN ERAKUNDEAREN ERANTZUNA ETIOPIAN

Save the Children **erakundea eragindako barrutien % 70tan baino gehiagotan ari da lanean.** Dagoeneko bertan lanean aritzeak toki ahulenak identifikatzen eta horietan ekiten uzten digu eta komunitateei haurrak babes ditzaten laguntzen uzten digu.

Diru-sarrerak galdu dituzten **familiak behar dituzten elikagaiak, ura, sendagaiak eta babes hornitzeaz** arduratzen gara. **Ura eta saneamendua lortzeko baldintzak hobetzea (ur-bidoiak eta xaboia emanez, komunak eraikiz edo heziz) bezalako gauza soil batekin, bizitza asko salbatzen ditugu.** Uholdeak saihesteko **ur-bazterrak eraikitzen eta ur-putzuak zaharberitzen** ditugu eta abereak osasuntsu mantentzen lagunduko duten **elikadura banatzen** dugu.

Gainera, komunitateko osasun-langileak hezten ari gara, desnutrizioa tratatu dezaten eta egonkortze-zentroetara bidal ditzaten gehien erasandako haurrak. **Eskolak zaharberitzen ditugu eta, bertan, ura eta saneamendua dituztela ziurtatzen dugu;** horrela, neska-mutilak bertan geratzen dira eta heziketa-materiala ere jasotzen dute.

Familiak beren etxeak utzi behar izanez gero, aterpe-kitak ditugu. Guztia galdu duten eta bizitzeko bitarteko nahikorik ez duten familiak babesten saiatzen gara **“dirua lanaren truke”** programari esker.

# PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

2017KO LIBURUAREN  
EGUNA

“Ura izateko  
eskubidea: ezinbesteko  
aztarna”

Save the Children  
erakundeak Liburuaren  
Egunarekin bat egin nahi  
du, data esanguratsua  
eta didaktikoa baita  
hezkuntzan. Haur,

Lehen eta Bigarren  
hezkuntzako komunitatea  
protagonista egingo dugu,  
bat egin dezaten mundu  
justuago bat eraikitzeko.

Proposatutako material  
didaktikoak justiziaren,  
duintasunaren eta  
errespetuaren balioak  
gerturatzeko; balioak  
eta mezuak transmititzeko  
modu onenean babestuz:  
“liburuetan”. Irudimenak  
eta fantasiak haurren,  
gazteen eta helduen  
munduan hartzen du  
estalpea, guztiok ura  
izateko eskubidearen  
eta inguratzen  
gaituen munduaren  
iraunkortasunaren alde  
parte-hartzea bultzatzeko.

## Helburuak

- Liburuaren Egunean parte hartzea, liburua baita mundu justuagoa eta iraunkorragoa lortzeko protagonista.
- Liburuaren Egunean, hezkuntza-komunitatea justiziaren, duintasunaren eta giza eskubideen eta haurren eskubideen errespetuaren balioekin lotzea.
- Parte-hartzearen eta erantzunkidetasunaren alde egitea, guztiok ura eta saneamendua izatearen alde.

## Edukiak

- Ipuina eta liburua
- Ura izateko eta arduraz erabiltzeko eskubidea
- Giza eskubideak eta haurren eskubide bereziak
- Garapen jasangarria eta giza garapena

## Eskumenak

- Ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta adierazpen artistikoa
- Pertzepzioa eta ezagutza
- Entzutea eta enpatia
- Sormena eta irudimena
- Analisia eta hausnarketa
- Talde-lana eta akordioa
- Erlazionatzea, ondorioztatzea eta arrazoitzea
- Negoziazioa eta lankidetzak
- Banako eta talde-erantzukizuna

Jarduerak diseinatzeko unean, kontuan hartu da prozesu hauen alde egiteko oinarritutako metodologia:

- Pertzepzio-, ezagutze- eta ulertze-prozesua, liburuaren eta ipuinen bidez.
- Analisi-, hausnarketa- eta ulermen-prozesua, banako eta taldeko lanen bidez.
- Banako eta taldean parte hartzeko prozesua, sormenezko adierazpen tekniken bidez (muralak, mezuak, poesiak, orri-markatzaileak...) guztiok ura izateko eskubidearen alde.





## “ZERBAIT... OSO, OSO GARRANTZITSUA”

3-6 urte

50 min.

### PROPOSAMENA

Ikasleei pista batzuk ematea, oso mezu garrantzitsua duten ipuinetako pertsonaiak aurkitzeko: “Ura ezinbestekoa da bizitzeko”. Ahotsaren, intonazioaren, keinuaren eta talde-ekintzaren bidez, ipuinak eta pertsonaiak uraren garrantziaren aliatu egitea.

### BEHAR DENA

- 3-6 urteentzako ipuinak
- Argazki-kamera
- Orri-markatzaileak
- Koloretako errotuladoreak
- Koloretako margoak aztarnak uzteko

### EGITEKO MODUA

#### Entzun pistak (5 min.)

Irakasleak txoko eroso batean bilduko du taldea, ipuinetako pertsonaiak bilatzeko pista hauek entzuteko:

*“Ura ezinbestekoa da bizitzeko” (ahots zakarrarekin irakurri behar da)*

*Esan zuen pertsonaia batek ahots zakarrarekin*

*“Ura ezinbestekoa da bizitzeko” (alai irakurri behar da)*

*Esan zuen pertsonaia batek irribarre batekin*

*“Ura ezinbestekoa da bizitzeko” (ahoa beteta edukiko balitz bezala irakurri behar da)*

*Esan zuen ahoa beteta zuen pertsonaia batek*



### **Aurkitu pertsonaiak ipuinetan (10 min.)**

“Nork esan zezakeen halako gauza garrantzitsua?... aurki dezagun ipuinetan...”. Irakasleak ipuinak ordenatu ditu gelan eta... “ura ezinbestekoa da bizitzeko” bezalako gauza garrantzitsua esan zezaketen pertsonaiak aurkitzeko eskatuko die haurrei. Haurretako batek pertsonaia bat identifikatzen duenenean, irakasleak hautaketa berretsiko du eta ipuinarekin geratuko da aukeratutako pertsonaiak biltzeko eta aurkezteko..

### **Jarri ahotsa pertsonaiari (10 min.)**

“Adi, prest, ja... nola esaten du gure pertsonaiak halako gauza garrantzitsua?, nolako ahotsa du?, nolako bolumena ematen dio?... Haur boluntarioen txanda bat egingo dugu, non pertsonaia bakoitzak “ura ezinbestekoa da bizitzeko” esaten duen.

### **Pertsonaiak antzeztu egiten dute (10 min.)**

Haurrak, denak batera edo banaka, intonazio eta sentsazio desberdinak praktikatzen dituzte mezu honekin: “ura ezinbestekoa da bizitzeko” (haizeari putz eginez, lepoa jirafa bat bezala luzatuta, hotz handiarekin ibaira erori garelako, leun labaindu dadin, isilik inurri bat imitatuz, ozen mundu osoak entzun dezan, poliki adineko bat balitz bezala, heldu batek bezala haur batentzat, maitasunez beteta beroa emateko...). Argazki bat aterako diegu ipuineko pertsonaia guztiei, guztiek batera “ura ezinbestekoa da bizitzeko” esanez.

### **Orri-markatzaileak apainduko ditugu guztiok batera (15 min.)**

Aldez aurretik koloretako errotuladoreekin “ura ezinbestekoa da” idatzi duen orri-markatzaileak banatuko ditu irakasleak. Haurrek orri-markatzaileak apaintzen dituzte eta koloretako aztarnak uzten dituzten halako esaldi garrantzitsuan.

## **IRADOKIZUNAK**

Astean zehar, etxetik ipuinak ekartzeko eskatuko die irakasleak neska-mutilei eta familiei. Jarduera bi saiotan egin daiteke, irakasleak egoki irizten badio.

## **AMAIERAKO GALDERA**

Zer esan nahi du “ezinbestekoa” hitzak? Orduan, guztiok eduki behar dugu ura?

# “NIKOLETA TXOTXONGILOA: URA ZERA BEZAIN GARRANTZITSUA DA...”

6-9 urte



50 min.

## PROPOSAMENA

Ipuinen eta “Nikoleta” txotxongiloaren laguntzarekin bere bizitzako gauzarik garrantzitsuenari buruz ikasleek hausnartzea. Gauza garrantzitsu horiek... ura bezain garrantzitsuak dira. “Nikoleta” txotxongiloarekin egindako ekintzetan eta egingo dituzten orri-markatzaileetan islatuko dute haurrek.

## BEHAR DENA

- Eraiki “Nikoleta” izeneko txotxongilo bat
- Orri-markatzaileak
- Folioak
- Arkatzak
- Bideo-grabagailua
- Koloretako margoak eta errotuladoreak apaintzeko eta aztarnak uzteko

## EGITEKO MODUA

### Aurkeztu “Nikoleta txotxongiloa” eta bere mezua (10 min.)

“Nikoleta” Liburuaren Egunean eskoletan, herrietan eta herrialdeetan agertzen den txotxongiloa da... eta ura oso oso garrantzitsua dela jakinarazten du:

*Hain da garrantzitsua... lore batentzat petaloak baino garrantzitsuagoa, bizikleta batentzat gurpil bat baino garrantzitsuagoa, arrain batentzat hezurra baino garrantzitsuagoa, zuhaitz batentzat hostoak baino garrantzitsuagoa... edota kaktus batentzat arantzak baino garrantzitsuagoa... **Edota zuentzat garrantzitsuena dena baino garrantzitsuagoa...***

### Ezagutu ipuinetan eta liburuetan gauza oso, oso garrantzitsuak (10 min.)

Ikasleentzat oso, oso garrantzitsuak diren gauzak aurkitu ahal izateko liburuak eta ipuinak erabiltzeko moduan antolatuko du ikasgela irakasleak.

### Antzeztu emanaldi bat “Nikoleta” txotxongiloarekin (15 min.)

Irakasleak taldeak osatuko ditu Nikoletarekin emanaldi bat antzezteko. Talde bakoitzak aurkitu dituen gauza garrantzitsuak ordenatuko ditu... oso, oso garrantzitsua da... Emanaldia hau esanez hasiko dute:

“Ura zera bezain garrantzitsua da... guretzat garrantzitsua hau da...” (eta ipuinetan aurkitutako gauza garrantzitsu guztiak azalduko dituzte...)

## Apaindu orri-markatzaileak (10 min.)

Ikasle bakoitzak uraren garrantzia eta nabarmendu duten gauza garrantzitsua lotzen dituen esaldi bat jarriko dute orri-markatzailean (adib.:“Hondartzarentzat hondarra bezain garrantzitsua da ura”) eta pertsona guztiok ura izateko dugun eskubidearen alde sinatuko dute orri-markatzailean beren hatzen aztarnak utziz.



### IRADOKIZUNAK

Irakasleak talde-lana antolatuko du, tokia, ikasleak, adina... aintzat hartuta, baita “Nikoleta” erabiltzea eta emanaldia ere. Nahi izanez gero, taldean edo banaka egin dezakete. Jarduera bi saiotan egin daiteke edo irakasleak beharrezko irizten dion saio kopurutan.

Garrantzitsua izan daiteke ikastetxean “Nikoleta” txotxongiloarekin emanaldi bat egitea lortzea eta gure mezuak hezkuntza-komunitatera iristea.

Irakasleak bideoan graba dezake emanaldia, talde guztiek ikus dezaten.

### AMAIERAKO GALDERA

Urari buruz zer ezagutu duzu? Ikusi duzue zein garrantzitsua den ura; zer egingo zenuke zaintzeko?



45 min.

# “OSAGAI ONAK”

9-12 urte

## PROPOSAMENA

Gogoko dituzten liburuak dituzten osagai onei eta uraren erabilera onari buruzko ideia-kateekin kartelak egitea. Ur garbia izateko eskubidearen aldeko orri-markatzaileei balioa ematen dioten esaldiak osatuko dituzte parte-hartzaileek, eta horretarako, “osagai onak” nahastuko dituzte.

## BEHAR DENA

- Kartoi-meheak
- Paper jarraitua
- Errotuladoreak eta margoak
- Orri-markatzaileak

## EGITEKO MODUA

### Liburuei buruzko “osagai” kateak. (15 min.)

Parte-hartzaile bakoitzak asko gustatu zaion liburu bat eramango du gelara eta aukeratu duen liburuak duen osagaia zein den azalduko du... zergatik gustatu zait hainbeste?... Gelan, irakasleak kartoi-mehe handi bat edo paper jarraitua erabiliko du guztien artean liburuak gustatzen zaizkigun arrazoari buruzko “ideia-osagai” kate bat idazteko. Parte-hartzaile bakoitzak osagai bat gehituko du muralean eta, amaieran, osagai guztiak irakurriko dira.


### Uraren erabilera onari buruzko “osagai-katea”. (5 min.)

Bizitza duina izateko uraren garrantziari buruzko ideia-truke labur bat egiten da, giza eskubideekin bat etorritik. Parte-hartzaile bakoitzak ura modu arduratsu eta jasangarri batean erabiltzeko “osagai on” bat pentsatuko du. Ideiak “kate-mural” batean islatuko dira eta guztiak batera irakurriko dira.

### Orri-markatzaileei balioa emateko osagaien konbinazioa. (15 min.)

Parte-hartzaile bakoitzak liburuetan gustatzen zaien “osagai” bat aukeratuko du, ura ongi erabiltzeko garrantzitsua irizten dion “osagaiarekin” konbinatuko du eta nahasketa “jasangarri” bat egingo (adib.: “Egia oihukatzen duen eta xahutu gabe dutxatzen den haurra”, “hortzak garbitzeko txorrota ixten duen indio ausarta”).

Ikasle bakoitzak sortu duen esaldiarekin eta pertsona guztiek ura izateko eskubidearen babesa sinbolizatzen dute koloretako aztarnekin apainduko du orri-markatzailea.



## **IRADOKIZUNAK**

Beharrezko irizten badio, irakasleak uraren erabilera onari buruzko osagaiak iradoki ditzake katerako: txorrota itxi, ura aurreztu, xahutu gabe dutxatu, xahutu gabe garbitu, zaborra gutxitu, xahutu gabe ureztatu, ahal den guztia birziklatu...

Era beran, ura izateko eskubidearen aldeko esaldiz eta aztarnez osatutako mural bat eginez amai daiteke jarduera.

## **AMAIERAKO GALDERA**

Zein osagai on irizten dituzu garrantzitsu giza eskubideak errespetatu daitezkeen?, nola uste duzu lortzen direla?



60 min.

# “URARI ENTZUTEN DIOTEN GIZAKIAK”

Adina: 12-16

## PROPOSAMENA

Antonio Machadoren “Ibiltari ez dago biderik” poema ezagutzea. Gauzek, sentimenduek eta giza ekintzek uzten dituzten aztarnei buruz hausnartzea eta pertsona guztiak ur garbia izateko duten eskubideak sortzen dituzten giza emozioak islatzen dituzten poemak eta orri-markatzaileak sortuz amaitzea.

## NECESITAS

- Antonio Machadoren poemaren edo Joan Manuel Serraten “Ibiltari ez dago biderik” abestiaren esaldiak
- Boligrafoak
- Folioak

## EGITEKO MODUA

### Ordenatu Antonio Machadoren poema (10 min).

rakasleak lan-taldeak osatuko ditu eta “Ibiltari ez dago biderik” poemaren esaldi **desordenatuak** emango dizkio talde bakoitzari. Taldeek 7 minutu dituzte poema ordenatzeko eta irakurtzeko.

### Erantzun galderei taldeka (10 min).

Taldeek minutu batzuk izango dituzten gauzek, sentimenduek eta giza ekintzek uzten dituzten “aztarnei” buruz eztabaidatzeko eta galdera hauek labur eta zehatz erantzuteko: zein aztarna uzten du Antonio Machadoren poemak?, zein aztarna uzten du besarkada batek?, zein aztarna uzten du irakurritako liburu batek?, zein aztarna uzten du ur-faltak?, zein aztarna uzten dute hiriek?, zein aztarna uzten du gizakiak lurrean?

### Sortu poema bat taldean (10 min).

Taldeek “Urari entzuten dioten gizakiak” izeneko poema sortuko dute. Poema sortzean kontuan izango da “aztarnei” buruz esandakoa eta galdera hauei erantzungo zaie: zer esaten digu urak?, zer iradokitzen du?, zer adierazten du urak?, zer sentitzen du?, zer proposatzen du urak?, zer baloratzen du urak?, zer nahiko nuke...?

### Partekatu poemak eta orri-markatzaileetarako esaldiak (15 min).

Talde bakoitzak bere poema irakurriko du eta parte-hartzaile bakoitzak bere aztarna utziko duen eta munduan uraren eskubidearen aldeko babesa erakutsiko duen orri-markatzailean islatzeko esaldia aukeratuko du.

## IRADOKIZUNAK


Taldeek ez balute asmatuko Antonio Machadoren poema ordenatzen, irakasleak den bezala irakurriko du edo Joan Manuel Serraten bertsioa jarriko du.

Garrantzitsua da taldeen lan-denborak kontrolatzea, parte-hartzea eta sormena bultzatzeko.

Sortutako poemak mural batean jar daitezke eta uraren eskubidea babesteko aztarnekin sina daitezke.

## AMAIERAKO GALDERA


Ikasle bakoitzak galdera hau partekatuko du taldearekin: “zer aztarna utzi dizu jarduera honek?”





**Ibiltari ez dago biderik**  
Ibiltari, zure oinatzak dira  
Bidea besterik ez;  
Ibiltari, ez dago biderik,  
Ibilian egiten da bidea.  
Bidea ibilian egiten da,  
Eta atzera begiratzean  
Bidexka ikusten da inoiz  
Berriz zapaldu behar ez dena.  
Ibiltari ez dago biderik  
Uhalak baino itsasoan.





Ureztatu Etiopia gisako herrialdeetako  
milaka neska-mutilen bizitza.

Jardueran bildutako dirua  
sartzeko kontu korrontea:

**Banco Santander**

**ES24 0049 1837 5829 1024 8925**



Gogoratu kontzeptuan ikastetxearen izena adieraztea.

Eskerrik asko!

Eskolako haurrei Afrikako herrialde txirotuetako neska-mutilen egoera gerturatzeko dien hezkuntza-proposamena da Solidaritatearen aldeko orri-markatzaileak, Save the Children erakundeak abian dituen haurrak bizirik irauteko proiektuetarako funtsak lortzeko eta haurren eskubideak ezagutzeko, gida honetan aurkezten diren proposamen didaktikoen bidez

Laguntzaileak:



**BIZIRAUTEA**

**IKASTEA**

**BABESTUTA EGOTEA**



**Save the Children**